

Alprojak!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Bizkorrak dira politikari alprojak. Horien artean, kosta ahala kosta nagusien ondareak handitzeko agintzen duten politikari alprojak dira osasunerako kaltegarrienak, lotsa aspaldi galdua dutenak eta kontzientzian inolako urraturik sentitzen ez dutenak.

Badira adibide anitz aukeran, baina bada bat bereziki mintzen nauena, erraustegia! Nor ez dute asaldatzen erraustegia-
ren eragin kaltegarriak? Datu bi ematearren: 1.000 milioi euro! eta gaixotasun zein minbizi anitzen ugartzea, kasu larrienean, %84 arterainokoa. Ezkutu-
an, gauez eta “alebosiaz” noren onerako aritu ote dira Orain Gipuzkoako agintariak? Ederki asko dakite zubietarrek, lasarte-oriarrek eta usurbildarrek.

Arduradun politikoen jardun tamalgarria argi ikusi dugu urte hauetan guztietan, baina erabaki horiek publikoki justifikatzeko darabilten harrokeriak dizkit bereziki barruak ozpintzen.

Nonbait Orain(go) Gipuzkoan hauteskundeetara eramandako programan erraustegia aipatzen omen zutelako herri-
tarrei zuzenean galdetzea ez dela beharrezkoa dioten agintari berberei derrigorrezkoa iruditzen zaie, ordea, atez ateko hondakin bilketaz galdetzea, Bilduko alka-
teen programan sistema hori aipatu arren... irrigarria!

Alderdien arteko hozkadak albo batera utzita, ikuspegi demokratikotik begiratu-
ta, nago burutzen ari diren frauderik larriena dela eta azken hamarkadetan herri-
tarrei egin zaien irain eta isekarik

miserableena... hienaren irri gogaikarriak datozkit gogora.

Hegoaldeko eguzki bortitzak begiak itsutzearekin batera bero lodiak gogoak eta giharrek nagitzen dizkigun bitartean eraiki nahi dute Orain(go) Gipuzkoa. Gi-
puzkoarrek ehunka alditan salatu dute proiektuaren larritasuna; azkenak, Gura-
SOS, Gipuzkoa Zutiken eskutik imajinazio eta arrakasta handiz, gainera. Bada, agin-
tari alproja horiek jakin behar dute Gipuz-
koa zaintzea beren ardura dela eta, gipuz-
koarrek aintzat hartu gabe eraikitako erraustegiak eragindako kalteaz hemen-
dik urte batzuetara damua agertuta ere, JEL gorenak ere ez dituela libratuko muns-
troaren garretan erraustetik...

Orain(go) Gipuzkoan, erabaki zuzena orain! •

Argiago ikusteko urratsak

Xabier Izaga

Uda sasoirik egokiena omen da jaietarako. Eguraldiagatik, nonbait. Eta jaiiez baino gehiago, eta eguraldiaz baino (ia) gehiago, sexu erasoez, edo eraso matxistez, hitz egiten dugu; dirudienez, eraso horietarako ere sasoi aproposena baita uda. Eta jaiak, une eta gune aproposenak. Horretaz idatzi zuten joan den astean orrialde honetako bi zutabegilek eta GAUR8ren ale bereko beste kolaboratzailearen batek, eta gai horixe dakart nik ere hizpide gaurko honetara.

Horretaz hitz egin beharra dago, bai, eta ez eguraldi kaskarra, galarrena edo bestelako natur fenomenoak balitz bezala, eguraldi kaskarra edo galarrenak saihetsezinak baitira. Auto istripuak ere etorri zaizkit buru-

ra, baina ez; horiek, gehienak, ez dira saihetsezinak. Denak dira deitoragarriak, eta euskal preso politikoen senide eta lagunek sufritzen dituztenak, gainera, salagarriak, zigor latz baten ondorio baitira.

Halaxe dira eraso matxistak ere. Horre-
gatik hitz egin beharra dago, eta idatzi eta kalera atera eta jendea kalera atera dadin adoretu eta emakume baten aurkako era-
soa denon aurkakoa dela ikusarazi.

«Bortxatzailea harrapatu eta akabatuko balute, hurrengoak bi aldiz pentsatuko lu-
ke», entzun dut orain dela pare bat egun taberna batean. Ez nator bat «konponbi-
de» horrekin –besteak beste, guztiz faltsua delako–, eta ez ulertu, mesedez, bortxa-
tzailea bake santuan uztearen aldekoa-edo

naizela. Baina zigor hutsa ez da konponbi-
dea. Kausari aurre egin gabe, nekez desa-
gertuko da efektua.

Emakumeek eraso salatzea ere ez da konponbidea, baina salaketa lehenengo pausoa da. Jendarteak, jendarte oso batek, salaketa hori babestea beste urrats bat da, urrats handia. Edozein eraso sumatuta de-
nok, taldean zein bakarrean, erasoaren aurka egitea, beste bat, ez nolanahikoa. Eta eraso horietako bakoitza bere aurkako era-
sotzat hartzen duen gizarteak erasotzaile-
en bultzada elikatzen duen pentsamoldea, (gain)egitura zaharkitu eta baztertzaile hori, erauzte alderako urratsak egiten ba-
ditu, konponbidea argiago ikusiko dugu, hurbilago egongo baita. •